

## Cabacas

Fiskalak Inigo Cabacasen auzia ixteko, artxibatze, bertan behera uzteko, tiradera batean gordetzeko, ikertzen ez jarraitzeko, baztertera uzteko, orria beste aldera itzultzeko, horkompon egiteko, argitu gabeko heriotzen zerrenda handia-gotzeko, beste alde batera begiratzeko eskatu



JIRA  
Angel Erró

du, ezin omen baita jakin nor egin zuen egun horretan tiro. Tiratzaile posibleen zerrenda ez zen mugagabea. Inigo Cabacas ez zen Siriako guda zelai batean hil. Gure hiri bateko kale batean bazi-zik. Ez dago tiroaren egile du, ezin omen baita jakin nor egin zuen egun horretan tiro. Tiratzaile posibleen zerrenda ez zen mugagabea. Inigo Cabacas ez zen Siriako guda zelai batean hil. Gure hiri bateko kale batean bazi-zik. Ez dago tiroaren egile

lea nor izan zen jakin ezin dela benetan sinetsiko duenik. Izenetik beretik herritarrak zaintze omen omen dauden funtzionarioetako baten ekintza batek eraginda. Ez dagokie funtzionario horren nagusiei inor errugabetzea. Berez, ikusi nahi ez badute ere, guztia estaltzeko nahi nabarmen honek errua baino ez du salutzen. Behar bezalako demokrazia batean erantzukizun hori justiziari dagokio. Herri osoari zor zaiona hori da, hildakoaren senideei zor zaiona hori da. Baketzeaz-eta hainbestetan esandako, aldarrikatutako, exijitutako guztia zertan gelditzen den kasu honen aurrean?

Ezkutakeria larria baldin bada, larriagoa da, fiskaltzaren aldetik, heriotza bat ez ikertzeko beharrari bizkarra ematea.

## Nkali printzipioa

Bada sarean Chimamanda Ngozi Adichie idazle nigeriarren hitzaldi interresgarri bat, historia bakarria erakitzearen arriskuei buruzkoa. Bertan kontatzen du, zelan, umetan idazten zitzen ipuin guztietan pertsonaia zuriak agertzen ziren, begi urdindunak: elurretan jolastan, sagarrak jaten edo eguzkitan egotea zein ederra zen esaten. Halakoxe pertsonaia asmatzen ei zituen nahiz eta beraiek Nigerian eguzkiaren goxoz mintzatu ez, mangoak jan eta elurrik egundo ikusi bakoak izan. Adichiek azaltzen duenez, irakur



BIRA  
Miren Amuriza

zen zuen egiten eta bere ipuinek argi erakusten dute historia bakarria jasotzeko zenbateraino eragin diezagukeen. Gerora, Estatu Batuetara joan zenean, bere ikaskide bat harritu egin izen Chimamandak ingelesez zeki-elako eta Mariah Carey entzuten zuelako; Afrikari buruzko historia bakarria, estereotipatu, iritsiko zitzaion hari ere.

Ba omen dauka igbo hizkuntzak izen adierazgarri bat: nkali, «beste baina handiagoa».

Bada, Adichieren ustez, nkali printzipioaren arabera idazten da historia; boterea duenak erabakitzen du zer, nola eta noiz kontatu. Boterea ez baita bestearen historia kontaktatzeko ahalmena edukitzea bakarrik, errelato hori betikotzeko gaitasuna edukitzea ere bada. Hemen uzten dizkizuet apunteak, baten bati ondo etorriko zaizkiolakoan...

## 18 Iritzia

# Inkisisizio 'moderno'

Jon Mirena Landa

EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen katedraren zuzendaria

1. Inkisisizioa aipatzen den unean denon burura irudi krudelak datozkigu: jendea sutara bidalia, errea, torturatua, heriotza-zigorera kondenatua, bermerik gabe epaitua, norberak pentsatzen duenagatik zigortua eta abar amaigabeko amesgaizto imajinaezinezkoaren baitakoak. Erdi Arokoak omen diren irudiak, iluntasunaren aldikoak, iraganekoak omen, gaurko ikuspegitik nagusitasunez begiratuta, Mendebaldeko gure herrialdeekin, Euskal Herriarekin, batere zerikusirik ei ez dutenak.

Inkisisioaren izenak, mundu juridikoan ere badu bere isla, besteak beste, prozedura penalarren ereduatan. Honen arabera, norbaitek egindako delitu baten ikerketa hasten den unetik epaileak ez du leku inpartzialik gordetzen: ikertu eta epaitu batera egiten du, hasiera batetik «akusatua» erruduna balitz bezala tratatuz. Eredu inkisitorial honetan akusatuak kasik ez du bermerik, muturrean bere errugabetasun-presuntzioa desagertzera ino. Dinamika horretan, hiritarra, atzamarrez identifikatzearekin batera, Estatuaren menpe dago, Estatuaren atzaparretan harrapatutik, harrapakin bihurtua, defentsa eragingarrik gabe, abusatua, txikitua, zapaldua. Eta horregatik Estatu demokratikotan printzipio inkisitoriala alboratu eta horren ordez akusazio-printzipioari lekua egiten zaio, inor kondenatu aurretik frogatu behar baita erruduna dela eta edonorri aukera eman behar zaio akusazio baten aurrean bere burua defendatzeko.

Estatu demokratikoetan akusazio-printzipio giza legeezkoak ez du bakar-bakarrik mundu juridiko-penala arautu behar: esparru publikoaren dinamika ere horren menpean egon behar harko litzateke. Epaiketa paraleloaz ari naiz, informazioz haratago doana eta oraindik errudun aldarrikatua ez den pertsona baten kondena aurrreratzeko.

2. Bada kasu bat, Bizkaiko herri batean gertatutakoa, eta oraindik ere guztiz itxi gabekoa, aurreko hausnarketarekin guztiz bat datorrena. Zinegotzi bat, martxoan, atxilotu egin zuten, sexu-abusu baten saiakeraz akusatuturik. Epaile aurrera eraman zutenenean, ordea, epaileak ez zion funtsik ikusi egindako salaketari eta

behin-behineko artxiboa ebatzi zuten. Alegia, egitateak bere aurrean aurkeztu ziren moduan, ez ziren nahiko atxilotutakoari delituri leporatzeko, ezta horren inguruan ikerketa batez jarraitzeko ere. Delitu zantzua nahiko direnean ikerketa hasi behar da, ustez egindako delitu baten bila, eta, egitateak aurkitu ahalala baita horren egilearekin lotzeko ere. Kasu horretan, prentsan bederen emandako informazioaren arabera, atxilotu eta berehala ezta ikerketarekin jarraitzeko modurik ere ez zuen ikusi magistratuak (bide batez, eta ezer aldatu behar harko ez balu ere, esan beharra dago emakumezkoa zela).

Gaur egun, sexu askatasunaren aurkako delituen kasuan dagoen kontzientzia dela-eta, ezohikoa da salaketa baten artxiboa. Pentsatu beharra dago, halabeharrez, epaileak erabaki hori hartu aurretik tentuz baloratu zuela. Eta azkenik har daitekeen erabakirik potoloenetarikoa (behin-behineko artxiboa) hartu ere egin zuela, hori baino definitiboagoa bakkarrik behin betiko artxiboa izan zitekeen-eta, praxis judizialean benetan ezohikoa dena.

Bestalde, sexu-abusu arrunt baten saiakerak, definizioz ez indarkeriarik ezta larrierarik ez dakarrena (bestela erasoa izango litzatekeelako, ez abusua), gehienez sei hilabete eta urte bat arteko presoaldia ekar lezake edo, alternatiboki, isuna besterik ez. Ikuspegi juridiko-penal batetik begiratuta delitua ez da «larria», baizik eta «larritasun gutxiagokoa» (33.2. art. Zigor Ko-

dea). Ez da gauza berbera sexu-abusua egitea edo horren saiakuntza; sexu-abusua edo erasoa; ukitzea edo bortxatzea; heldu baten aurkakoa edo adingabe baten aurkakoa. Denak dira jarduera delituzkoak, egiten badira, baina zigor oso desberdinak dakartzate.

3. Gauzak horrela izanik, Bizkaiko herrian, hainbaterik behin-behineko artxiboa ez balego bezala jardun zuten; areago, sexu-delitu larri baten errudun argi eta garbia bailitzan jokatzen zuten, gizarte-inkisisizio baten modura. Pintaketak berehalaxe azaldu ziren haren dimisioa eskatzen, eta udal eta udaletzeko talde batzuetatik kasua tratatua izan da neurri handi batean ikerketa penala zabalik balego bezala. Baina artxibatua eta gero hiritarra bere estatus normalera itzultzen da, horren aurkako helegitea balego ere. Etorzikizunaren instrukzioa birzabalduko balitz, orduan ikusi beharko da, baina, bitartean, hiritarak, zinegotziak, edozeinen estatus berberaz gozatzeko eskubidea badu.

Nire iritzia aparte, horrelako salaketa gertatzen denetik biktimari berehalaxe laguntza publikoa eskaini beharra dago. Baina erantzukizun politikoa ezin da etorri ikerketa penal batek aurrera egiten ez badu. Artxiboa egon bada, hiritarra ezin da tratatua izan delituarekin inoz de zerikusia balu bezala. Askotan, delituaren larritasunaren arabera, pertsona jakin bati hasieran lehen «egotzi» edo gaur «iker-tu» formalki aldarrikatzen denean, orduan erantzukizun politikoak etorri beharko luke (dimisio-eskaera adibidez). Baina ez lehenago, giza eskubidea den erugabetasuneko ustea guztiz txikitu nahi ez badugu. Are gutxiago pertsona horren aurkako pintaketak edota bestelako ekintzak, gizarite-mailan, hura bizitza zibiletik baztertzekoak.

Pintaketak eta gizarite-estigmatizazioak eragindua ez ezik, horren famaliakide eta lagunak ere harrapatzen ditu. Soziologiaren ikuspegitik, kontrol informala (Justizia formala ez dena), formala bezain efikaza eta mingarria izan daiteke edo areago ere. Baina kontrol informalak, askotan, ez du mugarik eta oso injustua izan daiteke. Justizia formal inkisitoriala ez badugu nahi, ez dezagun sustatu antzeko molde «informala» ez gure erakunde publikoaren jardun politikoan ezta gure jardun sozialean ere, eragindua suertatzen den pertsonaren kolore ideologikoari edo egindako delituklaseari erreparatu gabe. Eta hori esatea politikoki zuzena ez bada ere, gure lurraldean sekula egin den azpiegiturarik handiena.

**Justizia formal inkisitoriala ez badugu nahi, ez dezagun sustatu antzeko molde «informala», ez gure erakunde publikoaren jardun politikoan, ez eta gure jardun sozialean ere, eragindua suertatzen den pertsonaren kolore ideologikoari edo egindako delituklaseari erreparatu gabe. Eta hori esatea politikoki zuzena ez bada ere**